

## AGINTARIAK ETA LANGILERIA

### Oposaketak eta lehiaketak

#### OSAKIDETZA-EUSKAL OSASUN ZERBITZUA

## 5659

*1839/2022 EBAZPENA, azaroaren 24koa, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiarena, zeinaren bidez onartzen diren estatutupeko lotura finkoa lortzeko hautaketa-prozesua arautuko duten oinarri espezifikoak Teknikari Laguntzaile Profesionalak lanbide-taldeko Ofiziala kategorian (Zerbitzu Orokorretako Gidaria lanpostu funtzionala), Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zerbitzu sanitarioetako erakundeetako destinoetan.*

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiaren azaroaren 24ko 1736/2022 Ebazpenaren bidez onartu dira Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuan estatutupeko lotura finkoa lortzeko deitutako hautaketa-prozesu hauetako oinarri orokorrak: 2020ko, 2021eko eta 2022ko urteetakoak eta egonkortzeko prozesukoak.

Hautaketa-prozesu bakoitza gauzatzeko, beharrezkoa da kategorია bakoitzeko destinoen deialdia arautuko duten oinarri espezifikoak argitaratzea.

Horregatik, kontuan izanda Euskadiko Antolamendu Sanitarioaren ekainaren 26ko 8/1997 Legea, Osasun-zerbitzuetako estatutupeko langileen esparru-estatutuaren abenduaren 16ko 55/2003 Legea, Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren testu bategina onartzen duen urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretua, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzua Ente Publikoaren lanpostu funtzionalak arautzen dituen uztailaren 19ko 186/2005 Dekretua, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzua Ente Publikoaren Estatutu Sozialak ezartzen dituen azaroaren 11ko 255/1997 Dekretua eta indarrean dauden gainerako xedapen aplikagarriak,

#### EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Oinarri hauen xede diren hautaketa-prozesuetarako deia egitea.

Bigarrena.– Osakidetzan estatutupeko lotura finkoa lortzeko hautaketa-prozesuak (lehiaketa-oposizioko blokea eta lehiaketako blokea) arautuko dituzten oinarri espezifikoak onartzea, I. eranskinean jasotakoak, Teknikari Laguntzaile Profesionalak lanbide-taldeko Ofiziala kategorian (Zerbitzu Orokorretako Gidaria lanpostu funtzionala), Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zerbitzu sanitarioetako erakundeetako destinoetan.

Hirugarrena.– Ebazpen honen II. eranskinaren bidez onartzea bloke bakoitzean (lehiaketa-oposizioko blokea eta lehiaketako blokea) eskainitako destinoen zerrenda.

Laugarrena.– Ebazpen honen III. eranskinean agertzen den merezimenduen baremoa onartzea (baremo bera da oposizio-lehiaketaren blokerako eta lehiaketako blokerako).

Bosgarrena.– Lehiaketa-oposizioko blokeko gai-zerrenda onartzea, Ebazpen honen IV. eranskinean jasotakoa.

Seigarrena.– Deialdi honetan parte hartzeko eskaera aurkezteko epea 2023ko otsailaren 21etik 2023ko martxoaren 20ko 14:00ak artekoa izango da, hala ezarri baita oinarri orokorrak onartzen dituen Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiaren azaroaren 24ko 1736/2022 Ebazpenaren 9.3 oinarrian.

2022ko abenduaren 27a, asteartea

Zazpigarrena.– Ebazpen honen aurka gora jotzeko errekurtoa jarri ahal izango zaio Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Administrazio Kontseiluari. Horretarako, hilabeteko epea izango da, Ebazpena EHAAan argitaratzen den egunaren hurrengo egunetik hasita, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legean, Euskadiko Antolamendu Sanitarioari buruzko ekainaren 26ko 8/1997 Legean eta Osakidetzaren estatutu sozialak ezartzeko azaroaren 11ko 255/1997 Dekretuan ezarritakoaren arabera.

Vitoria-Gasteiz, 2022ko azaroaren 24a.

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusia,  
MARÍA ROSA PÉREZ ESQUERDO.

## I. ERANSKINA

OSAKIDETZA-EUSKAL OSASUN ZERBITZUAN ESTATUTUPEKO LOTURA FINKOA  
LORTZEKO HAUTAKETA-PROZESUAK ARAUTUKO DITUZTEN OINARRI ESPEZIFIKOAK  
TEKNIKARI LAGUNTZAILE PROFESIONALAK LANBIDE-TALDEKO OFIZIALA  
KATEGORIARAKO (ZERBITZU OROKORRETAKO GIDARIA LANPOSTU FUNTZIONALA),  
OSAKIDETZA-EUSKAL OSASUN ZERBITZUKO ZERBITZU SANITARIOETAKO  
ERAKUNDEETAKO DESTINOETARAKO

1.– Deialdiaren xede diren destinoak.

1.1.– Deialdi honen xede izango dira Teknikari Laguntzaile Profesionalak lanbide-taldeko Ofiziala kategoriako (Zerbitzu Orokorretako Gidaria lanpostu funtzionala) Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zerbitzu sanitarioetako erakundeetako destinoak; II. eranskinean jasota daudenak, alegia.

1.2.– Deialdian sartutako destinoen % 7 desgaitasunen bat duten langileek betetzeko gordeko dira, II. eranskinean jasotako oinarri orokorretako 1.3 oinarrian ezarritako banaketaren arabera.

2.– Izangaiek bete beharreko eskakizunak.

Honen bidez araututako prozesuan parte hartzeko, izangaiek, oinarri orokorretan ezarritako salbuespenak kenduta, aurkezteko epearen azken egunean bete beharreko eskakizunez gain, oinarri orokorretan jasota daudenak ere bete beharko dituzte, eta horiek kasuan kasu esleitzen den destinoa jabetzan hartu arte bete beharko dira:

a) Oinarri orokorretako 6.2.c) apartatuan xedatutakoarekin bat, edozein teknikari-titulu edo titulu baliokidea izatea, Hezkuntza eta Zientzia Ministerioak emana, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzua Ente Publikoaren lanpostu funtzionalak arautzen dituen uztailaren 19ko 186/2005 Dekretuaren I. eranskinean zehaztutakoa betez.

b) B motako gidabaimena edo baliokidea izatea.

c) Lortu nahi den lanpostuaren eskakizunak betetzea, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzua Ente Publikoaren lanpostu funtzionalak arautzen dituen uztailaren 19ko 186/2005 Dekretuak xedatutakoaren arabera, bai eta indarrean dagoen araudiak eskatzen duen beste edozein eskakizun betetzea ere.

d) Eskabideak aurkezteko epearen barruan izena emateko eskubideengatik dagokion tasa ordaindu izana, eskainitako destinoen lanbide-taldearen arabera:

C2 taldea (D talde zaharra): 15 euro.

3.– Prozesua nola garatuko den:

3.1.– Lehiaketa-oposizioko blokearen eta lehiaketako blokearen lehiaketa-fase bateratua:

3.1.1.– Eskakizunen eta merezimenduen egiaztapena. Dokumentazioa aurkeztea.

Onartutakoen eta baztertutakoen behin betiko zerrendan onartuta dauden izangaiek 10 egun balioduneko epea izango dute –onartutakoen eta baztertutakoen behin betiko zerrenda argitaratzen den egunaren hurrengotik hasita– deialdian parte hartzeko eskatzen diren eskakizunen eta merezimenduen alegazioa egiteko, bai eta horien inguruko egiaztagiria aurkezteko ere, 12.1 oinarrian ezarritakoaren arabera.

Egiaztatutako merezimenduak III. eranskineko merezimenduen baremoaren arabera baloratuko dira, oinarri orokorretan ezarritako irizpideen arabera (12.2 oinarria).

3.1.2.– Oinarri orokorretako 14.1.1 apartatuan (lehiaketa-oposizioko blokea) eta 14.2.1 apartatuan (lehiaketako blokea) zehaztutako puntuazio-hurrenkeraren arabera izangaien behin-behineko zerrenda argitaratu ondoren, I. eranskinean agertzen diren proposatutako izangaiek honako dokumentu hauek aurkeztu beharko dituzte:

– Medikuntzako eta Kirurgiako Lizentziako tituluaren edo baliokidearen eta lortu nahi den lanpostu funtzionalean aritzeko eskatzen den Angiologiako eta Kirurgia Baskularreko espezialitatearen tituluaren fotokopia konpultsatua edo notarioaren testigantza, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzua Ente Publikoaren lanpostu funtzionalak arautzen dituen uztailaren 19ko 186/2005 Dekretuaren I. eranskinean zehaztutakoa betez.

Izangai bat aldi berean lehiaketa-oposizioko blokeko I. eranskinean eta lehiaketako blokeko I. eranskinean sartuta badago, dokumentazioa behin bakarrik aurkeztu beharko du, oinarri orokorretan ezarritakoaren arabera (14.1.2 oinarria).

3.2.– Lehiaketa-oposizioko blokeari dagokion oposizio-fasea:

Epaimahai kalifikatzaileari dagokio probaren edukia eta kalifikazioa zehaztea, eta, horretarako, hautaketa-prozesua behar bezala garatzeko beharrezkotzat jotzen dituen neurriak hartuko ditu eta prozesuaren gardentasuna eta objektibotasuna bermatuko du.

Epaimahaiak Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuari eskatu ahal izango dio aholkulariek parte har dezatela hautaketa-prozesuaren fase guztietan, bai proba prestatzeari dagokionez, bai lehiaketa-fasean. Aholkulariek epaimahaikideei eskatzen zaien titulu-eskakizun bera izango dute.

Epaimahaiak kanpoko erakunde aholkularietara jotzea ere eskatu ahal izango dio Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuari, bai probak prestatzeko, bai oposizio-fasean probekin zerikusia duten gai guztietarako.

Probari idatziz erantzun beharko zaio, ematen den gehieneko denboraren barruan, eta galderak IV. eranskinean jasotako gaiei buruzkoak izango dira.

a) Gai-zerrenda komunari buruzko galderak Osakidetzaren webgunean argitaratutako galdera sortatik aterako dira.

b) Gai-zerrenda orokorrari buruzko galdera horiek prestatzeko bibliografia ere eranskin berean emango da.

Epaimahai kalifikatzaileari dagokio gai-zerrenda komuneko galderak hautatzea eta gai-zerrenda orokorreko galderak hautatzeari buruzko erabakiak hartzea. Epaimahaiak galdera horiekin guztiekin osatuko du, hain zuzen ere, ariketa teorikoa.

## II. ERANSKINA

DESTINOEN ZERRENDA KATEGORIA HONETAN: ZERBITZU OROKORRETAKO OFIZIAL  
GIDARIA

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiaren 1736/2022 Ebazpenaren bidez onartutako oinarri orokorretako 1. oinarrian xedatutakoaren arabera, destino hauek betetzeko deialdia egiten da:

1.– Lehiaketa-oposizio blokea:

a) Txanda askeko deialdia: 14 destino.

Sarbide orokorra: 13.

Erreserba-kupoa desgaitasunen bat duten pertsonentzat: 1.

– Adimen-desgaitasuna duten pertsonentzako kupoa: 0.

– Bestelako desgaitasunak dituzten pertsonentzako kupoa: 1.

2.– Lehiaketako blokea:

Sarbide orokorra: 3 destino.

Adimen-desgaitasuna duten langileentzako destinoak (adimen-desgaitasuna duten pertsonentzako kupoa) ez badira betetzen ez dagoelako hautaketa-prozesua gainditzen duen izangai nahikorik, destino horiek desgaitasunen bat duten langileentzako erreserba-kupoan gehituko dira (bestelako desgaitasunak dituzten pertsonentzako kupoa).

Desgaitasunen bat duten langileentzako destinoak ez badira betetzen ez dagoelako hautaketa-prozesua gainditzen duen izangai nahikorik, destino horiek dagokion txandako sarbide orokorreko lanpostuetan gehituko dira; hots, barne-sustapenean edo txanda irekian.

Oinarri orokorretako 2. oinarrian ezarritakoaren arabera, deialdi honen xede diren zerbitzu sanitarioetako erakundeetan destinoak, lehiaketa-oposizioko blokekoak zein lehiaketako blokekoak, zehaztuko dira, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko lekualdatze-lehiaketa ireki eta iraunkorreko uneko zikloko destinoen behin betiko esleipenaren ebazpena argitaratu ondoren, deialdiaren xede diren kategoriak, eta Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian 2018-2019ko EPEko behin betiko esleipenaren ebazpena argitaratu ondoren. Bi horiek Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiaren ebazpen bidez argitaratuko dira, eta Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuaren webgunean argitaratuko dira.

## III. ERANSKINA

MEREZIMENDUEN BAREMOA TEKNIKARI LAGUNTZAILE PROFESIONALAK  
LANBIDE-TALDEKO OFIZIALA KATEGORIARAKO (ZERBITZU OROKORRETAKO  
GIDARIA LANPOSTU FUNTZIONALA), OSAKIDETZA-EUSKAL OSASUN ZERBITZUKO  
ZERBITZU SANITARIOETAKO ERAKUNDEETAKO DESTINOETARAKO

## 1) Lan-esperientzia (gehienez, 60 puntu).

Eskabideak aurkezteko epearen azken egunaren aurreko 20 urteetan izangaiei aitortu zaien zerbitzaldia hartuko da kontuan.

Zenbaketa osoa lan egindako egun naturaletan oinarrituko da, eta baztertu egingo dira hilabete-tik beherako soberakinak. Horretarako, 30 egun naturaleko multzoa hartuko da hilabetetzat.

1.– Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zerbitzu sanitarioetako erakundeetan edo autonomia-erkidegoetako osasun-zerbitzuetan ofizial gisa (Zerbitzu Orokorretako Gidaria lanpostu funtzionala) emandako zerbitzuen hilabete bakoitzeko: 0,21 puntu.

2.– Gizarte Segurantzako zerbitzu sanitarioetako erakundeetan, aurreko puntuan aipatu ez diren administrazio publikoetan edota Europar Batasuneko gainerako estatu kideen sare publikoko zerbitzu sanitarioetan ofizial gisa (Zerbitzu Orokorretako Gidaria lanpostu funtzionala) emandako zerbitzuen hilabete bakoitzeko: 0,0525 puntu.

Barne-sustapeneko txandaren bidez sartzten diren langileei ondoren zehazten den moduan zenbatuko zaizkie alde zuzeneko zerbitzuak:

a) E taldean eskainitako zerbitzuak: 0,08 puntu hilabete bakoitzeko.

b) D taldean eskainitako zerbitzuak: 0,12 puntu hilabete bakoitzeko.

c) Lortu nahi den lanpostu berean emandako zerbitzuak:

c.1) Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zerbitzu sanitarioetako erakundeetan edo autonomia-erkidegoetako osasun-zerbitzuetan: 0,21 puntu hilabete bakoitzeko.

c.2) Gizarte Segurantzako zerbitzu sanitarioetako erakundeetan, aurreko puntuan aipatu ez diren administrazio publikoetan edota Europar Batasuneko gainerako estatu kideen sare publikoko zerbitzu sanitarioetan: 0,105 puntu hilabete bakoitzeko.

Zerbitzu-eginkizunetan edo goragoko kategoriako eginkizunetan emandako zerbitzuak benetan betetako lanpostuan zenbatuko dira.

Halaber, jatorrizko lanpostuan zenbatuko dira zerbitzu berezietan emandako zerbitzuak.

2) Prestakuntza, irakaskuntza eta ikerketa (gehienez, 20 puntu).

A) Apartatu honetan, honako hauen arabera egiaztatzen den prestakuntza baloratuko da:

a) Graduareko prestakuntza:

Deialdiko lanpostu funtzionalean aritzeko eskatutako tituluaren ikasketetan ateratako ohorezko matrikula edo bikain bakoitzeko (honako ikasgai hauek ez dira kontuan hartuko: erlijioa, etika, prestakuntza politikoa, gorputz-hezkuntza eta hizkuntzak):

– Ohorezko matrikula bakoitzeko: 0,6 puntu.

– Bikain bakoitzeko: 0,4 puntu.

b) Informatikako ezagutzak (gehienez, 2 puntu).

B) Apartatu honetan, eskaerak aurkezteko azken egunaren aurreko 10 urteetan amaitu den prestakuntza baloratuko da, eta honela egiaztatuko da:

a) Etengabeko prestakuntza:

Eskatutako destinoaren kategoriarekin zerikusia duten ikastaroetara joateagatik:

– 9 ordura arte: 0,50 puntu.

– 10 eta 19 ordu bitartean: 1 puntu.

– 20 eta 29 ordu bitartean: 2 puntu.

– 30 eta 49 ordu bitartean: 3 puntu.

– 50 eta 99 ordu bitartean: 4 puntu.

– 100 eta 199 ordu bitartean: 5 puntu.

– 200 ordu edo gehiago: 6 puntu.

Ikastaroen egiaztagirian kreditu kopurua bakarrik jasota dagoenean, puntuazioa emateko balio-kidetasun hau egingo da:

– Kredituen Europako Sistemaren (ECTS) 1 kreditu: 25 ordu.

– Etengabeko Prestakuntza Batzordeko 1 kreditu: 10 ordu.

Ikastaroaren ordu kopurua eta kreditu kopurua adierazten ez duten egiaztagirien kasuan, edo kredituak izan bai, baina horiek aurreko paragrafoan zehaztutakoak ez direnean edo kredituen beste ordu-baliokidetasun bat ezartzen denean, epaimahaiak, aurkeztutako egiaztagiriak eta ikastaroaren edukia ikusita, dagokion puntuazioa emango du, eta kasu horretan ez du inolaz ere 0,50 puntu baino gutxiago emango.

Erakunde ofizialek, unibertsitateek, erakunde sanitarioek eta, hala badagokio, elkargo profesionalek eta elkarte zientifikoek egiaztatutako/akreditatutako ikastaroak baloratuko dira, baita edozein administrazio publikok hitzartutako etengabeko prestakuntzako akordioen arabera egiaztatutako/akreditatutako ikastaroak ere, betiere titulu ofizial bat lortzeko ikasketa-plan baten barrukoak ez badira.

b) Irakaskuntza-jarduerak:

– Irakaskuntza, etengabeko prestakuntzako programa ofizialetan (orduko): 0,050 puntu.

c) Jarduera zientifikoa eta ezagutzaren hedapena:

Eskatutako destinoko lanpostu funtzionalarekin zerikusia duten lan zientifikoak argitaratzearen, txostenak aurkeztearen, komunikazioak aurkeztearen, hitzaldiak ematearen edo mahai-inguruetan parte hartzearen:

– Txosten bakoitzeko: 2 puntu.

– Ahozko komunikazio/poster bakoitzeko: 1 puntu.

- Mahai-inguru bakoitzeko: 1 puntu.
- Argitalpen bakoitzeko (lehenengo egilea): 2 puntu.
- Argitalpen bakoitzeko (beste egile batzuk): 1 puntu.

Ez da baloratuko atal honetan zehaztu ez den merezimendurik.

3) Euskara:

- 2. HE: 18 puntu.
- 1. HE: 9 puntu.



## IV. ERANSKINA

## OFIZIALA (ZERBITZU OROKORRETAKO OFIZIALA GIDARIA LANPOSTU FUNTZIONALA)

## I.– GAI-ZERRENDA OROKORRA

Lehenengo atala.– Zirkulazioari eta ibilgailuei buruzko ezagutza orokorrak.

## 1.– Zirkulazio Araudi Orokorra.

- Trafikoari, ibilgailu motordunen zirkulazioari eta bide-segurtasunari buruzko arauak aplikatzea.
- Zirkulazioko jokabideei buruzko arau orokorrak.
- Ibilgailuetako zama. Pertsonak, salgaiak edo bestelako gauzak garraiatzea.

– Gidariantzako arau orokorrak.

## 2.– Ibilgailuen Araudi Orokorrak.

- Baimenak eta horien eragina.
- Ibilgailuen erregistroa.
- Oinarrizko kontzeptuak.
- Ibilgailuen sailkapena.
- Ibilgailu motordunen, ataien eta erdi-ataien homologazioa, ikuskapena eta baldintza teknikoak.
- Ibilgailuen zirkulazio-baimenak.

Bigarren zatia.– Ibilgailuaren ezagutza.

## 3.– Automobila.

- Ibilgailu moten araberako sailkapena.
- Atalen edo kanpoko formaren konfigurazioaren arabera.
- Automobil motak, karrozeriaren eraikuntzaren arabera.
- Automobilaren ezaugarri nagusiak.
- Ezaugarri dimentsionalak.
- Ezaugarri teknikoak.

## 4.– Segurtasuna automobilean.

- Prebentzio-segurtasuna.
- Erosotasuna eta ergonomia.
- Ikuspena eta argiak.
- Klimatizazioa.
- Segurtasun aktiboa.

- Motorra-propultsorea multzoa.
- Esekidura, direkzioa eta balaztak.
- Segurtasun aktiboko sistema elektronikoak.
- Segurtasun pasiboa.
- Segurtasun-uhalak eta pretentsoreak.
- Airbaga eta alboetako barrak.
- Beiren hornikuntza.
- Karrozeriako kolpe-leungailua.

#### 5.– Motorrak.

- Motorraren elementuak.
- Bilokea, kulata, pistoia, segmentuak.
- Biela, birabarkia, inertzia-bolantea.
- Sarrera- eta ihes-kolektoreak.

#### 6.– Banaketa.

- Espeka-ardatza.
- Aginte-sistemak.
- Balbulak, malgukiak, zabu-aulkiak, hagaxka bultzatzaileak, takeak.
- Funtzionamendu-printzipioak.
- Lau aldiko eztanda-motorraren funtzionamendu teorikoaren printzipioak.
- Lau aldiko diesel-motorraren funtzionamendu teorikoaren printzipioak.
- Lau aldiko motorren funtzionamendu praktikoaren printzipioak.
- Zilindradaren oinarritzko ezagutzak, konpresorearen, potentziaren eta motor-parearen arteko erlazioa.

#### 7.– Hoztea.

- Hoztearen zeregina eta hozte motak.
- Aire bidezko hoztea.
- Likido hozgarri bidezko hozketa.
- Zirkuitua osatzen duten elementuak.
- Erradiadorea, ponpa, termostatoa eta haizagailuak.
- Hedapen-botila. Purgagailuak.
- Segurtasuneko tapoiak eta zorroak.

- Likido hozgarria.
  - Sistema egiaztatzeko elementuak.
  - Berogailua.
- 8.– Lubrifikazioa.
- Koipeztaketa mistoko zirkuitua.
  - Erabateko presio bidezko koipeztaketa zirkuitua.
  - Zirkuituaren osagaiak.
  - Olio-ponpa, deskarga-balbula.
  - Olio-iragazkiak.
  - Igorpen kutsakorren kontrol-sistemak.
  - Egiaztapen- eta kontrol-sistemak.
  - Olioak.
  - Olio mineralak eta sintesi-olioak.
  - Olioen ezaugarriak.
  - Olio motak, biskositearen arabera.
- 9.– Transmisio-elementuak.
- Enbragea.
  - Marruskadurazko enbragea: enbrageko diskoa eta mazona. Lepokoa.
  - Enbragearen funtzionamendu orokorra.
  - Abiadura-kaxa: motak eta oinarrizko funtzionamendua.
  - Diferentzialak: motak eta oinarrizko funtzionamendua.
  - Transmisio-ardatza eta palierrak.
- 10.– Suspentsioa.
- Suspentsio-sistemak.
  - Elementuak. Motelgailuak.
  - Aurreko suspentsioa.
  - Atzeko suspentsioa.
  - Suspentsio hidroneumatikoa.
- 11.– Direkzioa.
- Direkzio-sistemaren elementuak.
  - Bolantea, zutabea.

- Direktzio-kutxa, direktzio-bieletak, errotulak.
- Direktzio lagundua.
- Direktzioa lerrokatzea.
- Pibotea. Mangeta.
- Erorketa-, irteera- eta aitzinamendu-angelua.

– Konbergentzia.

## 12.– Freno-sistema.

- Frenatze-elementuak.
- Danbor-frenoak.
- Danborra, zapatak eta frenoari eusteko platera.
- Eragingailu hidraulikoa eta tentsore automatikoa.
- Danbor-frenoen funtzionamendu orokorra.
- Diskozko frenoak.
- Freno-diskoak.
- Freno-pintzak eta -pastillak.
- Eragingailu hidraulikoa.
- Funtzionamendu orokorra.
- Eragintza hidraulikoko sistema.
- Frenoen ponpa.
- Likidoen depositua.
- Frenatze-erreduktoreak.
- Hoditeria eta tenkagailuak.
- Frenoen likidoa.
- Eragintza mekanikoko sistema.
- ABS freno-sistema.
- ABS Bosch sistemaren osagaiak (lau kanal).

## 13.– Gurpilak eta pneumatikoak.

- Gurpilaren elementuak.
- Pneumatikoaren atalak.
- Errodatze-banda.
- Orpoa, sorbalda, albo.

- Zentraketa-kordoia, karkasa.
  - Barneko gomazko estaldura.
  - Pneumatiko motak.
  - Ganberarik gabeko pneumatikoak.
  - Pneumatikoaren identifikazioa.
  - Puzketa-presioa.
  - Aguaplaninga.
  - Hagon metalikoak. Hagonaren terminologia dimentsionala.
- 14.– Ibilgailuaren oinarriko sistema elektrikoak.
- Bateria.
  - Ibilgailuaren sistema elektrikoak.
  - Karga-zirkuitua.
  - Abiatze-zirkuitua.
  - Pizte-zirkuitua.
  - Argien zirkuitua.
  - Maniobra-zirkuitua.
- Hirugarren atala.– Zirkulazioa eta bide-segurtasuna.
- 15.– Zirkulazio-arauak.
- Bide publikoak. Erabilera. Ibilgailuen zirkulazioa.
  - Bide-markak.
  - Abiadura.
  - Ohartarazpenak gidariei.
  - Ibilgailuen argiak.
  - Argiak.
  - Seinaleztapen optikoa.
  - Zirkulazio-seinaleak.
  - Arau orokorrak.
  - Agenteen seinaleak eta aginduak.
  - Aldi baterako seinaleak (balizak).
  - Semaforoak.
  - Seinale bertikalak.

- Arrisku-seinaleak.
  - Arauzko seinaleak.
  - Argibide-seinaleak.
- 16.– Bide-segurtasuna.
- Zirkulazio-baimena. Ibilgailuaren dokumentazioa.
  - Gidariaren egoera fisikoa.
  - Edari alkoholdunak eta drogak.
  - Erreakzio-denbora.
  - Bideko arrisku zehatzak.
  - Bihurguneak.
  - Baldintza meteorologiko edo ingurumen-baldintza txarrak.
  - Zirkulazio-istripuak.
  - Gidaria.
  - Abiadura.
  - Erreakzioko, frenatzeko eta gelditzeko tartea eta segurtasun-tartea.
- 17.– Lehen sorospenak: arau orokorrak.

#### GAI-ZERRENDA OROKORRAREN BIBLIOGRAFIA

1.– 1428/2003 Errege dekretua, azaroaren 21ekoa, Zirkulazio Araudi Orokorra onartzeko dena, betiere, trafikoari, ibilgailu motordunen zirkulazioari eta bide-segurtasunari buruzko legearen testu artikulatua, martxoaren 2ko 339/1990 Legegintzako Errege Dekretuaren bitartez onartua, aplikatu eta garatzearen.

2.– 2822/1998 Errege Dekretua, abenduaren 23koa, Ibilgailuen Araudi Orokorra onartzeko dena.

3.– Fundamentos tecnológicos del automóvil. Eduardo Águeda Casado, José Luis García Jiménez, José Martín Navarro eta Tomás Gómez Morales. Paraninfo/Thomson Learning argitaletxea. ISBN: 978-84-9732-084-9.

4.– Manual resumido permiso B. Editor Aeol Service S.L. ISBN: 978-84-614023-4-2.

#### II.– GAI-ZERRENDA KOMUNA

- 1.– Euskadiko Antolamendu Sanitarioa.
- 2.– Osakidetza-Euskal osasun zerbitzua Ente Publikoa.
- 3.– Osakidetzako paziente eta erabiltzaileen eskubideak eta betebeharrak.
- 4.– Osasunaren arloko aurretiazko borondateak.
- 5.– Datu Pertsonalak Babesa eta Eskubide Digitalak Bermatzea.

- 6.– Emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna.
- 7.– Marko Estrategikoa.
- 8.– Osasun Plana. Euskadiko Osasun Politikak.
- 9.– Pazientearen Segurtasun Estrategia Osakidetzan.
- 10.– Euskadiko Arreta Soziosanitarioko Estrategia.
- 11.– Osakidetzan Euskararen erabilera normalizatzeko III. Plana.

#### GAI-ZERRENDA KOMUNAREN BIBLIOGRAFIA

- 1.– 8/1997 Legea, ekainaren 26koa, Euskadiko Antolamendu Sanitarioarena.
- 2.– 255/1997 Dekretua, azaroaren 11koa, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzua Ente Publikoaren Estatutu Sozialak ezartzen dituenak.
- 3.– 147/2015 Dekretua, uztailaren 21ekoa, Euskadiko osasun-sistemako pertsonen Eskubideei eta Betebeharrei buruzko Adierazpena onartzen duena.
- 4.– 7/2002 Legea, abenduaren 12koa, osasun-arloko aurretiazko borondateena.
- 5.– 3/2018 Lege Organikoa, abenduaren 5ekoa, Datu Pertsonalak Babesteari eta Eskubide Digitalak Bermatzeari buruzkoa.
- 6.– 4/2005 Legea, otsailaren 18koa, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerakoa, martxoaren 3ko 1/2022 Legearen bigarren aldaketa barne.
- 7.– Marko Estrategikoa. Osasun Saila. 2021-2024.  
[https://www.euskadi.eus/contenidos/informacion/marco\\_estrategico\\_2021\\_2024/eu\\_def/adjuntos/Marco-Estrategikoa-Osasun-Saila-2021-2024.pdf](https://www.euskadi.eus/contenidos/informacion/marco_estrategico_2021_2024/eu_def/adjuntos/Marco-Estrategikoa-Osasun-Saila-2021-2024.pdf)
- 8.– Osasun Plana. Euskadiko Osasun Politikak 2013-2020.  
[http://www.osakidetza.euskadi.eus/contenidos/informacion/publicaciones\\_informes\\_estudio/eu\\_pub/adjuntos/osasun\\_plana\\_2013\\_2020.pdf](http://www.osakidetza.euskadi.eus/contenidos/informacion/publicaciones_informes_estudio/eu_pub/adjuntos/osasun_plana_2013_2020.pdf)
- 9.– Pazientearen Segurtasun Estrategia Osakidetzan 20 20.  
[https://www.euskadi.eus/contenidos/informacion/cinfo\\_estrategia\\_seg\\_paciente/eu\\_def/adjuntos/ESTRATEGIA2020\\_eu.pdf](https://www.euskadi.eus/contenidos/informacion/cinfo_estrategia_seg_paciente/eu_def/adjuntos/ESTRATEGIA2020_eu.pdf)
- 10.– Euskadiko Arreta Soziosanitarioko Estrategia (2021-2024).  
[https://www.euskadi.eus/contenidos/documentacion/doc\\_sosa\\_soziosanitario\\_estrat/eu\\_def/adjuntos/estrategia\\_sociosanitaria\\_187x280\\_eu\\_web.pdf](https://www.euskadi.eus/contenidos/documentacion/doc_sosa_soziosanitario_estrat/eu_def/adjuntos/estrategia_sociosanitaria_187x280_eu_web.pdf)
- 11.– Osakidetzan Euskararen erabilera normalizatzeko III. Plana 2022-2028.  
[https://www.osakidetza.euskadi.eus/contenidos/informacion/osk\\_trbg\\_planes\\_programas/eu\\_def/adjuntos/Osakidetzan-Euskararen-Erabilera-Normalizatzeko-III-Plana-2022-2028.pdf](https://www.osakidetza.euskadi.eus/contenidos/informacion/osk_trbg_planes_programas/eu_def/adjuntos/Osakidetzan-Euskararen-Erabilera-Normalizatzeko-III-Plana-2022-2028.pdf)